EGUNEKO ARRETA, ZAINTZAILEAK ALDI BATERAKO ATSEDENA HAR DEZAN

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. Hemen informazio laburtua.

Zertan datza zerbitzu hau?

Eguneko zentro edo zerbitzuetara aldi baterako sartzea buruko gaixotasuna duten pertsonak, normalean familiako zaintzaileek zaintzen dituztenak etxean (2.5 fitxa).Helburua da zaintzaileak atsedenerako, aisialdirako eta bere burua zaintzeko denbora pertsonala izatea. Zaintzaileak ere jo dezake zerbitzura, bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoelako (bajan dago, oporretara joan behar du...).Aldi baterako prestazioa ematen den zentro edo eguneko zerbitzuari dagokion zerbitzua da eskaintzen dena.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Buru gaixotasuna duten pertsonen zaintzaile nagusiak eta senideak, atsedena behar dutenak.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Gaixotasun mentala duen pertsona eta zaintzailea etxebizitza berean eta dagokion lurralde historikoko udalerri batean erroldatuta egotea.
- Gaixotasun mentala duten pertsonak eta zaintzaileak eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan bizileku berean erroldatuta egotea.
- Eguneko zerbitzura edo atseden hartzeko egonaldia egingo den eguneko zentrora sartzeko baldintzak betetzea.
- Zaintzailea eta gaixotasun mentala duen pertsona elkarrekin bizi direla egiaztatzea, zaintzaren prestazioa justifikatzen bada Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute.Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- Egunean zehar zaintzaileak atseden hartzeko arreta Araban
- Egunean zehar zaintzaileak atseden hartzeko arreta Bizkaian
- Egunean zehar zaintzaileak atseden hartzeko arreta Gipuzkoan

Fitxa laburrera itzuli